


FAMILIEN KONFIANTZA

EAEko familiek neutraltasunetik gertu mantentzen dute konfiantza

EAEKO FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

2025eko 1. HIRUHILEKOA

-4




Laboral Kutxak egiten duen adierazlearen arabera, 2025eko lehen hiruhilekoan EAEko familien konfiantzak beherakada txiki bat izan zuen, 2024ko amaieran erregistratutako balioekin alderatuta. Hain zuzen ere, indizea -4 izan zen, aurreko erregistrotik bi puntu beherago, nahiz eta 2024ko batez bestekoaren ildotik eta neutraltasunetik gertu mantendu zen. Ingurune ekonomikoaren ezegonkortasunak eta inflazioaren balizko gorakadak presioa eragin zuten indizean, eta beherantz eraman zuten.

Hala eta guztiz ere, Europako herrialde nagusiekin alderatuz gero, agerian geratzen da EAEko familien unitateen baikortasuna beste lurralde batzuetakoa baino nabarmen handiagoa dela, eta, oro har, igurikimenek ere okerrera egin dutela. Besteak beste, Europar Batasuneko lehen hiru hilabeteetako batez bestekoa -13koa izan zen, aurreko balioa baino puntu bat txikiagoa. EAEko familien baikortasun handiagoa konstante bat izan da 2021eko bigarren hiruhilekotik.

FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA


	2023	2024	2024				2025
			I	II	III	IV	I
Euskadi	-9	-4	-5	-3	-4	-2	-4
Europar Batasuna	-19	-13	-14	-13	-12	-12	-13
Frantzia	-17	-14	-13	-15	-13	-15	-13
Alemania	-15	-11	-15	-10	-10	-10	-12
Herbehereak	-19	-12	-12	-12	-10	-12	-16

EKONOMIA OROKORRA




Atalka eginiko analisiak adierazten du ezkortasuna ekonomia orokorrari buruzko iritzietan kontzentratu zela bereziki (-19), eta, neurri txikiagoan, etxeko ekonomian (-6), nahiz eta azken horrek profil nahiko egonkorra erakutsi zuen 2024aren hasieratik. Aitzitik, aurrezteko ahalmenari buruzko igurikimenek eremu positiboan jarraitu zuten, aurreko hiruhilekoekin alderatuta behera egin bazuten ere.

FAMILIAREN EKONOMIA




Azkenik, EAEko familiak baikor hasi ziren 2025. urtean, langabeziaren bilakaerari dagokionez, lan merkatuaren adierazleek iradokitzen dutenarekin bat etorri. Afiliazioa milioi bat kotizaitzailetik gorakoa den testuinguru batean, familien heren batek datozen hamabi hilabeteetan langabezia murriztea espero du, eta %49k, berri, gaur egun dagoenaren antzeko mailetan jarraituko duela uste du.

LANGABEZIAREN BILAKAERA



AURREZTEKO GAITASUNA



Iturria: Laboral Kutxa.